**Soraluzeko IUPI**
Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala
2026-2029

# Jarduketa-Plana: Udalerri irisgarria



**Soraluzeko IUPI**
Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala
2026-2029

# Jarduketa-Plana: Udalerri irisgarria

Data
**2025eko Iraila**

Sustatzailea
**Soraluzeko Udala**

Lan honek **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren** %85eko dirulaguntza jaso du

Aholkularitza teknikoa eta idazketa
**Projekta Urbes**




Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala hurrengo dokumentuek osatzen dute:

I. IUPI: Memoria.
**II. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udalerri irisgarria.**
III. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irisgarria.
IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.
V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.












# Aurkibidea

**Jarduketa Planaren laburpena** 4
**Hiri-ingurunea** 8
- Gabolats eta Estaziño igogailu eta ibilbide irisgarri batekin lotu 8
- Olaldea eta biala igogailu batekin lotu, Calongera pasabidea gehituz 12
- Biala eta Zeleta auzunea igogailu batekin lotu 15
- Plaza Zaharra eta Erregetxeko aparkalekua igogailu batekin lotu 18
- Olaldea eta Atxuri artean oinezkoentzako eta bizikletentzako zubi irisgarria eraiki 21
- Baltegieta eta Mendiola artean oinezkoentzako eta ibilgailuentzako zubi irisgarria eraiki 24
- Eskailerak eta arrapalak egokitu 27
- Estaziño kalean trafiko baretuko eremua ezarri 31
- Zeletan plataforma bakarra ezarri 38
- Santa Ana kalean plataforma bakarra ezarri 41
- Atxuri eta Baltegieta kaleetan plataforma bakarra ezarri 44
- Baltegieta kalean espaloia egokitu, Kiroldegiko arrapala barrenean 47
- SAPA inguruan zoladuraren irisgarritasuna hobetu 49
- Ibai ertzean pasealeku irisgarriak eraiki 51
- Zebra-bideak egokitu eta berriak ezarri 54
- Elizaren eta frontoiaren arteko espazioa egokitu 57
- Erregetxe azpian espazio estali bat egokitu, Plaza Zaharrari lotua 61
- Plaza Zaharra eta ibai-ertza harmaila batekin lotu 64
- Atsedengune bat egokitu Osintxura bidean 67
- Hiri-altzari eta jolas-elementu egokituak edo irisgarriagoak jarri 70
- Komun publikoak egokitu edo irisgarriagoak jarri 72
- Zabor-bilketa irisgarriagoa egin 74
- Hobekuntza-lan arruntak egin irisgarritasuna hobetzeko 77
- Oinezko ibilbide eta guneetako garbiketa sakona egin presio handiko ura erabiliz 79

**Garraioa** 81
- Egokitutako aparkalekuen irisgarritasuna hobetu 81
- Herrigunean bizikleta-bideen sarea diseinatu 84
- Autobus-zerbitzua eskualde-mailan hobetu 88

**Eraikin publikoak** 89
- Musika Eskola eraberritu 90
- Udaletxeko arreta-gunea egokitu 92

**Espazio eta jarduera pribatuak** 94
- Merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduen irisgarritasuna hobetzeko laguntzak diseinatu eta gauzatu 94
- Etxebizitza-eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko obrak egiteko laguntzak diseinatu eta gauzatu 96

# Jarduketa Planaren laburpena

| Laburpen taula | 2026 | 2027 | 2028 | 2029 | 2026-2029 (1) | 2030-2033 (2) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Udalerri irisgarria** | 240.000 | 76.000 | 110.000 | 75.000 | | 70.000 |
| (*) Baldintzatua | | | | | 3.500.000 | 5.390.000 |
| (*OUJP) | | | | 2.050.000 | | |
| **Udal irisgarria** | 21.500 | 14.500 | 18.000 | 27.000 | 20.000 | 111.000 |
| **Guztira** | **261.500** | **89.500** | **128.000** | **102.000** | **20.000** | |

(1) Zenbait jarduketa IUPI honi dagokion 2026-2029 laurtekoan kokatu dira, urtea zehaztu gabe.

(2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa batzu jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa.

(*) Ekonomikoki baldintzatutako jarduketei dagokio: finantzaketa lotzeko aurrelanak egitea eskatzen du.

(*OUJP) Jarduketa Olaldea eraldatuko duen UJP—Urbanizatzeko Jarduketa Programaren (“PAU: Programa de Actuación Urbanizadora”) eremuan sartua dago, finantzaketa, proiektua eta obra haren bitartez gauzatuko direlarik.

| | Udalerri irisgarria | 2026 | 2027 | 2028 | 2029 | 2026-2029 (1) | 2030-2033 (2) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **Hiri-ingurunea** | | | | | | |
| **1.1** | **Ibilbide irisgarrien sarea igogailuekin osatzea.** | | | | | | |
| **a** | Gabolats eta Estaziño igogailu eta ibilbide irisgarri batekin lotu. | | | | | 750.000 (*) | |
| **b** | Olaldea eta biala igogailu batekin lotu, Calongera pasabidea gehituz. | | | | 750.000 (*OUJP) | | |
| **c** | Biala eta Zeleta auzunea igogailu batekin lotu. | | | | | | 750.000 (*) |
| **d** | Plaza Zaharra eta Erregetxeko aparkalekua igogailu batekin lotu. | | | | | | Ikus 1.7.b |
| **1.2** | **Ibilbide-sarea ibaiaren gaineko zubi irisgarriekin osatzea.** | | | | | | |
| **a** | Olaldea eta Atxuri artean oinezkoentzako eta bizikletentzako zubi irisgarria eraiki. | | | | 1.000.000 (*OUJP) | | |
| **b** | Baltegieta eta Mendiola artean oinezkoentzako eta ibilgailuentzako zubi irisgarria eraiki. | | | | | 2.000.000 (*) | |
| **1.3** | **Ibilbide-sarea arrapala irisgarriekin eta eskailera seguruekin osatzea.** | | | | | | |
| **a** | Eskailerak eta arrapalak egokitu. | 40.000 | 15.000 | 15.000 | 15.000 | | |
| **1.4** | **Irisgarritasuna hobetzea eta trafikoa baretzea kale partekatuen eta plataforma bakarren bitartez.** | | | | | | |
| **a** | Estaziño kalean trafiko baretuko eremua ezarri. | 15.000 | | | | 300.000 (*) | |
| **b** | Zeletan plataforma bakarra ezarri. | | | 15.000 | | | 300.000 (*) |
| **c** | Santa Ana kalean plataforma bakarra ezarri. | | | | 300.000 (*OUJP) | | |
| **d** | Atxuri eta Baltegieta kaleetan plataforma bakarra ezarri. | | | | | | 300.000 (*) |
| **1.5** | **Espaloi eta pasealeku irisgarriagoak eraikitzea eta egokitzea.** | | | | | | |
| **a** | Baltegieta kalean espaloia egokitu, Kiroldegiko arrapala barrenean. | 15.000 | | | | | |
| **b** | SAPA inguruan zoladuraren irisgarritasuna hobetu. | 100.000 | | | | | |
| **c** | Ibai ertzean pasealeku irisgarriak eraiki. | 15.000 | 15.000 | | | | 800.000 (*) |
| **1.6** | **Zebra-bide eta bidegurutzetako irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea.** | | | | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **a** | Zebra-bideak egokitu eta berriak ezarri. | 10.000 | 10.000 | 10.000 | 10.000 | | |
| **1.7** | **Espazio publikoak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea.** | | | | | | |
| **a** | Elizaren eta frontoiaren arteko espazioa egokitu. | | | | 20.000 | | 70.000 |
| **b** | Erregetxe azpian espazio estali bat egokitu, Plaza Zaharrari lotua. | | | | | | 1.600.000 (*) |
| **1.8** | **Espazio naturalak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea.** | | | | | | |
| **a** | Plaza Zaharra eta ibai-ertza harmaila batekin lotu. | | | | | 450.000 (*) | |
| **b** | Atsedengune bat egokitu Osintxura bidean. | | | | | | 90.000 (*GFA) |
| **1.9** | **Hiri-ekipamenduen irisgarritasuna hobetzea.** | | | | | | |
| **a** | Hiri-altzari eta jolas-elementu egokituak edo irisgarriagoak jarri. | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 | | |
| **b** | Komun publikoak egokitu edo irisgarriagoak jarri. | | | | | | Ikus 1.7.b<br>Ikus 1.9.b |
| **c** | Zabor-bilketa irisgarriagoa egin. | 0 (**) | | | | | |
| **1.10** | **Urtez-urteko jarduketa arruntetan irisgarritasun-irizpideekin egitea.** | | | | | | |
| **a** | Hobekuntza-lan arruntak egin irisgarritasuna hobetzeko. | 10.000 | 10.000 | 10.000 | 10.000 | | |
| **b** | Oinezko ibilbide eta guneetako garbiketa sakona presio handiko ura erabiliz. | 0 (**) | 0 (**) | 0 (**) | 0 (**) | | |
| **2** | **Garraioa** | | | | | | |
| **2.1** | **Garraiorako azpiegituren eta zerbitzuen irisgarritasun baldintzak hobetzea.** | | | | | | |
| **a** | Egokitutako aparkalekuen irisgarritasuna hobetu. | 0 (**) | 6.000 | | | | |
| **b** | Herrigunean bizikleta-bideen sarea diseinatu. | 15.000 | | | | | |
| **2.2** | **Garraiorako zerbitzuen irisgarritasuna hobetzea.** | | | | | | |
| **a** | Autobus-zerbitzua eskualde-mailan hobetu. | 0 (**) | | | | | |
| **3** | **Eraikin publikoak** | | | | | | |
| **3.1** | **Eraikin publikoetako irisgarritasuna hobetzea.** | | | | | | |
| **a** | Musika Eskola eraberritu. | | | | | | 1.500.000 (*) |
| **b** | Udaletxeko arreta-gunea egokitu. | | 0 (**) | 40.000 | | | |
| **4** | **Espazio eta jarduera pribatuak** | | | | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **4.1** | **Espazio eta jarduera pribatuen irisgarritasun baldintzak hobetzeko laguntzak diseinatzea eta gauzatzea.** | | | | | | |
| **a** | Merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduen irisgarritasuna hobetzeko laguntzak diseinatu eta gauzatu. | 0 (**) | 0 (**) | 0 (**) | 0 (**) | | |
| **b** | Etxebizitza-eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko obrak egiteko laguntzak diseinatu eta gauzatu. | 0 (**) | 0 (**) | 0 (**) | 0 (**) | | |

**Oharrak:**

(1) Zenbait jarduketa IUPI honi dagokion 2026-2029 laurtekoan kokatu dira, urtea zehaztu gabe.

(2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa batzu jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa.

(*) Ekonomikoki baldintzatutako jarduketa: finantzaketa lotzeko aurrelanak egitea eskatzen du.

(**) Aurrekonturik gabeko jarduketa zehatza: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da.

(*OUJP) Jarduketa Olaldea eraldatuko duen UJP—Urbanizatzeko Jarduketa Programaren (“PAU: Programa de Actuación Urbanizadora”) eremuan sartua dago, finantzaketa, proiektua eta obra haren bitartez gauzatuko direlarik.

(*GFA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketara baldintzatua.

# Hiri-ingurunea

| **1.1.a** | **Gabolats eta Estaziño igogailu eta ibilbide irisgarri batekin lotu.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.1. Ibilbide irisgarrien sarea igogailuekin osatzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Gabolats kaleko 19 zenbakiaren ondotik, Estaziño kaleraino.<br> |
| **Egungo egoera** | — Gabolats kaleko 32 zenbakiaren paretik (+102m) Estaziño kaleraino (+122m) 20 metro inguruko kota aldaketa dago. Lehenengo tartean eskailera polit bat dago, geometria aldetik egungo estandarrak betetzen ez dituena. Bigarren tarte batean eskailera zuzen bat dago, 21-29 zenbakien azpialdeko terraza luzera daramana. Hirugarren tarte batean terraza eta Estaziño kalearen arteko eskailera dago, 29 zenbakiaren ondoan. Igoera honen alternatiba 230 metroko ibilbide bat da, zenbait tartetan %10etik gorako malda duen espaloi bati jarraituz. |





*Lehenengo eskailera-tartea, Gabolatsetik gora.*



*21-29 zenbakien azpialdeko terraza luzea, +117m inguruko kotan.*



*Terrazaren eta Estaziño kalearen arteko lotura, 29 zenbakiaren ondoan.*



*Terrazaren eta Estaziño kalearen arteko lotura, 21 zenbakiaren ondoan.*

| **Azalpena** | — Proiektua idatzita dago. | |
|---|---|---|
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** | — Obra gauzatu. | 750.000 (*) |
| **2030-2033** | — --- | --- |

| | |
|---|---|
| **Oharrak** | — Proiektua 2025ean idatzi zen.<br>— (*) Ez da obra gauzatzeko data zehaztu, ekonomikoki baldintzatua dagoen jarduketa baita.<br>— (*) Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- |
| **Beste eragileak** | — --- |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Obra egitea. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Gabolats eta Estaziño igogailu eta ibilbide irisgarri batekin lotu izana, eta kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus “Igogailuak” fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |

## 1.1.b Olaldea eta biala igogailu batekin lotu, Calongera pasabidea gehituz.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.1. Ibilbide irisgarrien sarea igogailuekin osatzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Igogailua: gaur egungo Santa Ana kaleko 30 zenbakiaren paretik, Estaziño kaleraino (“biala”, Zeleta 4 parean).<br>— Pasabidea: igogailuaren goiko sarbidetik (Estaziño kalean), Alejandro Calonge auzuneko 5 zenbakiraino. |



**Egungo egoera**

— Santa Ana kaletik bialeraino dauden 15 metroak egoera txarrean dauden eskailera batzuekin lotzen dira gaur egun. Ibilbide alternatiboak 370m-ko luzera dauka, zati batzuetan ez dauka espaloirik eta %10etik gorako maldak dituen tarteak ditu.



*Santa Anatik Estaziñora doazen eskailerak.*

**Azalpena**

Jarduketaren atal nagusiak honakoak dira:

— Olaldeko hiri-garapenaren karga modura, bi kotak lotuko dituen igogailu bat eraikitzea.

— Calonge etxetaldearekin lotura irisgarria sortzea.





*Olaldeko garapenaren antolaketa orokorra: eraikinaren ipar-ekialdean (ezkerretan) ikus daiteke nola kokatu diren ardatz berean eremua bialarekin lotuko duen igogailua eta Atxurirekin lotuko duen zubia (ikus "Olaldea eta Atxuri artean oinezkoentzako eta bizikletentzako zubi irisgarria eraiki" fitxa).*




*Igogailuaren ebaketa.*

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — Proiektua idatzi eta obra gauzatu (Olaldeko UJParen barruan). | 750.000 (*) |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (*) Jarduketa Olaldea eraldatuko duen UJP—Urbanizatzeko Jarduketa Programaren (“PAU-Programa de Actuación Urbanizadora”) eremuan sartua dago, finantzaketa, proiektua eta obra haren bitartez gauzatuko direlarik.<br>— Data aurreikuspen bat da: Olaldeko UJParen garapenean eragile askok parte hartuko duenez, ziurtatu ezin daitekeena.<br>— Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — Olaldeko UJP-ko sustatzaile eta eragileak. | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Olaldeko UJPren bitartez. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Olaldea eta bialaren arteko biala eta Calongera pasabidea eraiki izana, eta kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Igogailuak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

## 1.1.c Biala eta Zeleta auzunea igogailu batekin lotu.

**Ardatza**

1. Hiri-ingurunea

**Helburua**

1.1. Ibilbide irisgarrien sarea igogailuekin osatzea.

**Lehentasuna**

— Ertaina.

**Irismena**

— Zeleta auzuneko 4 zenbakiko etxebizitza-eraikinaren ondoan, Estaziño kalearen ("bialaren") eta Zeleta auzunearen artean.




**Egungo egoera**

— Bialetik Zeleta auzora igotzeko 12 metroko kota aldaketa dago. Ibilbide alternatibo bat badago, Estaziñoko igogailuan zehar, baina haren goiko kotatik Zeletaraino dagoen ibilbidea ez da irisgarria.



*Biala (+123m).*



*Zeleta auzunea (+136m).*

| | |
|---|---|
| **Azalpena** | — Olaldetik bialera eraikitzea aurreikusten den igogailuari jarraipena emanez, bigarren igogailu bat proposatzen da, biala eta Zeleta auzoa elkartuz. |

| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |

| | | |
|---|---|---|
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — Biala eta Zeleta lotuko dituen igogailua eraikitzeko proiektua idatzi eta obra gauzatu. | 750.000 (*) |
| **Oharrak** | — IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoan jaso da obra egitea, baldintzatua dagoen jarduketa baita, bai ekonomikoki, bai eta Olaldea eta bialaren arteko igogailuaren jarduketagatik ere.<br>— (*) Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Obra gauzatzea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Biala eta Zeleta auzunea igogailu batekin lotu izana, eta kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus “Igogailuak” fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

## 1.1.d Plaza Zaharra eta Erregetxeko aparkalekua igogailu batekin lotu.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.1. Ibilbide irisgarrien sarea igogailuekin osatzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |

**Irismena**

— Plaza Zaharraren eta Erregetxeko aparkalekuaren artean (Gabolats kaleko 1 zenbakiaren ondoan).




**Egungo egoera**

— Ez dago Erregetxeko aparkalekura iristeko modu irisgarririk. Plaza Zaharreko estalpearen proiektuarekin lotuta aukera dago gai honi irtenbidea emateko.



*Erregetxeko aparkalekua.*




*Gabolats 5A zenbakiaren ondoko igogailuaren beheko sarbidea hurbil izango badu ere, erabiltzaileak leku desberdinetara eramaten dituzte batak zein besteak.*

**Azalpena**

Jarduketa proposamena:

- Igogailuak bi sarbide izango ditu: Plaza Zaharrekoa (+105m) eta egungo aparkalekuan egokituko den espazio publikokoa (+110m).
- Igogailua Erregetxe azpiko aterpe berriarekin batera eraikitzea aurreikusten da. Ikus “Erregetxe azpian espazio estali bat egokitu, Plaza Zaharrari lotua” fitxa.
- Beheko kotan, Plaza Zaharretik igogailura sarbide zuzena ematea aurreikusten da, ikus-eremu zabalarekin eta ezkutalekurik gabe.




*Igogailuak harreman zuzenean jarriko ditu Erregetxeko aoparkalekua eta Plaza Zaharra, bai eta Osasun Zentroa ere.*

| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
|---|---|---|
| **Oharrak** | — Igogailua “Erregetxe azpian espazio estali bat egokitu, Plaza Zaharrari lotua” jarduketaren barruan dago sartua. Ikus dagokion fitxa, aurrerago. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektuaren idazketa.<br>— Obra egitea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Plaza Zaharra eta Erregetxeko aparkalekua igogailu batekin lotu izana, eta kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus “Igogailuak” fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

| 1.2.a | Olaldea eta Atxuri artean oinezkoentzako eta bizikletentzako zubi irisgarria eraiki. |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.2. Ibilbide-sarea ibaiaren gaineko zubi irisgarriekin osatzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Bidartea auzoa. |




| | |
|---|---|
| **Egungo egoera** | — Gaur egun Santa Ana kaletik Atxuri kalera doan oinezkoen zubia, estua izateaz gain, eskailerak ditu eta egoera txarrean dago (kontuan izan behar da Zubi Nagusitik Olalderaino ez dagoela ibaia gurutzatzeko aukera irisgarririk).<br>— Ibaia gurutzatzeko aukera faltak oinez ibiltzen diren herritarren eguneroko bizitza zaildu eta herriaren banaketa azpimarratzen du. |





| | | |
|---|---|---|
| **Azalpena** | — Gaur egun Santa Ana kaleko 32 zenbakia dagoen paretik Errekaldea kaleko 1. zenbakiraino ibaia gurutzatuko duen zubi bat eraikitzea. Jarduketa hau Olaldeko garapenaren parte izango da. Horrela, Santa Ana eta biala lotuko dituen igogailuari jarraiki, ibaiak eta kota aldaketek sortzen dituzten oztopoak gainditzeko aukera berri bat sortuko da. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — Proiektua idatzi eta obra gauzatu (Olaldeko UJParen barruan). | 1.000.000 (*) |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (*) Jarduketa Olaldea eraldatuko duen UJP—Urbanizatzeko Jarduketa Programaren (“PAU-Programa de Actuación Urbanizadora”) eremuan sartua dago, finantzaketa, proiektua eta obra haren bitartez gauzatuko direlarik.<br>— Data aurreikuspen bat da: Olaldeko UJParen garapenean eragile askok parte hartuko duenez, ziurtatu ezin daitekeena.<br>— Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — Olaldeko UJP-ko sustatzaile eta eragileak.<br>— URA Uraren Euskal Agentzia. | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Olaldeko UJPren bitartez. | |

| | |
|---|---|
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Olaldea eta Atxuri artean oinezkoentzako eta bizikletentzako zubi irisgarria eraiki izana, eta kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Hegoaldeko muturrean, jarduketak hartzen duen eremuaren barruan sartzea gomendatzen da egoitzatik jeisten den aldapa barrena (Atxuri-Errekalderekin elkartzen den puntuan alegia), bidegurutzean oinezkoentzako gune goratua eraikitzeko. Jarduketa zehatz hau kalean plataforma bakarra ezartzeko jarduketarekin osatzen da (ikus “Atxuri eta Baltegieta kaleetan plataforma bakarra ezarri” fitxa).<br>— Ikus "Oinezkoen eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |

| **1.2.b** | **Baltegieta eta Mendiola artean oinezkoentzako eta ibilgailuentzako zubi irisgarria eraiki.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.2. Ibilbide-sarea ibaiaren gaineko zubi irisgarriekin osatzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Baltegieta kalearen eta Mendiola industrialdearen artean.<br> |
| **Egungo egoera** | — Mendiola eta Sagar-Erreka auzoen arteko lotura egiten duen zubiak gora-behera handiak egiten ditu Baltegieta kaleko errepidea goitik gurutzatzeko. Zubi honek ibilbideak erraztu ditzakeen arren, eskailerak ditu eta ez du irisgarritasuna bermatzen. Kasu honetan, ibaiaik herria bitan banatzen jarraitzen du. |



| | | |
|---|---|---|
| **Azalpena** | Deba ibaia gurutzatzeko aukera gehigarri hau herriguneko trafikoaren buruhaustearen konponbiderako ezinbesteko baliabidea da. Honetaz gain, oinezkoen eta bizikletazko ibilbide laburragoak eta irisgarriak ahalbidetuko dira Mendiola eta Baltegieta zein Sagar-Erreka artean.<br>Jarduketaren atal nagusiak honakoak dira:<br>— Udalaz kanpoko eragileekin izapidetzeak osatu eta haien inplikazioa lotu.<br>— Proiektua idatzi.<br>— Zubia eraiki. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** | — Mendiolako zubi berria eraikitzeko proiektua idatzi eta obra gauzatu. | 2.000.000 (*) |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — Jarduketa lehentasun altukoa da, baina baldintzatua dago (bai ekonomikoki, bai eta Udalaz kanpoko hainbat eragilek izapidetzeak gauzatzea edo eta haien inplikazioa behar delako). Horregatik, proiektua lehenengo laurtekoan kokatu da, urtea zehaztu gabe ordea.<br>— Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekont orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — URA Uraren Euskal Agentzia.<br>— Gipuzkoako Foru Aldundia. | |

| | |
|---|---|
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Obra egitea. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Baltegieta eta Mendiola artean oinezkoentzako eta ibilgailuentzako zubi irisgarria eraiki izana, eta kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Baltegieta aldean, jarduketaren eremua espaloiarekin osatu arte luzatzea. |

| **1.3.a** | **Eskailerak eta arrapalak egokitu.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.3. Ibilbide-sarea arrapala irisgarriekin eta eskailera seguruekin osatzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Udalerriko hiri-ingurunea. |
| **Egungo egoera** | <br>Herriko eskailera askoren diagnostiko orokorra:<br>— Mailen dimentsioak ez dira egokiak.<br>— Maila kopurua ez da araudiak ezarritakoa.<br>— Eskubandak falta dira, ez dira bikoitzak, ez daude alde bietan edo geometria desegokia dute.<br>— Ukimenezko zoladurak falta dira edo ez dira egokiak.<br>— Arrapalen diagnostiko orokorra:<br>— Ohikoa da %8-ko malda gainditzea.<br>— Ibilbide-tarte batzuk luzeegiak dira.<br>— Zabalerak eta atsedenguneak ez daude ondo dimentsionatuta.<br>— Eskubandak falta dira, ez dira bikoitzak, ez daude alde bietan edo geometria desegokia dute.<br>— Ukimenezko zoladurak falta dira edo ez dira egokiak. |
| **Azalpena** | — Oro har, herrian dauden eskaileretan eta arrapaletan ez da esku-hartze nabarmenik aurreikusten.<br>— Hauetan egin daitezkeen lanak "Hobekuntza-lan arruntak egin irisgarritasuna hobetzeko" jarduketak hartuko lituzke. Ikusi taula fitxa honen amaieran.<br>— Taula horretatik, Calonge etxetaldeko eskailerak lehentsi dira: hemen arrapala sortzea proposatzen da, elizaren atzealdeko arrapalatik etxetaldeko beheko mailara modu irisgarrian iristeko. |




*Calonge etxetaldeko eskailerak arrapala bidez lotzea, Elizaren atzekaldeko arrapalarekin.*





*Calonge etxetaldearen azpialdeko eskailerak.*

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — Frontoi kalea eta Calonge etxetaldea lotuko dituen arrapala irisgarria egokitu. | 40.000 |
| **2027** | — Eskailera eta arrapaletako irisgarritasuna hobetzeko lanak. | 15.000 |
| **2028** | — Eskailera eta arrapaletako irisgarritasuna hobetzeko lanak. | 15.000 |
| **2029** | — Eskailera eta arrapaletako irisgarritasuna hobetzeko lanak. | 15.000 |
| **2030-2033** | — Jarduketa jarraia. | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Obra egitea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Egokitutako eskailera eta arrapala kopurua, eta jarduketa bakoitzari dagokion kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Oinezko ibilbideak" eta "Arrapalak eta eskailerak" fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

Soraluzeko zenbait eskaileraren diagnostikoa, lehenespena eta hauen egokitzapenerako oinarrizko jarduketak honakoetan jaso dira:

- Diagnostikoa taula: labur.eus/Soraluze-IUPI-diagnostikoak
- Taularen edukiarekin sortutako mapa: labur.eus/Soraluze-IUPI-mapa1









## 1.4.a Estaziño kalean trafiko baretuko eremua ezarri.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.4. Irisgarritasuna hobetzea eta trafikoa baretzea kale partekatuen eta plataforma bakarren bitartez. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — 1 Errepide Nazionalean. |




**Egungo egoera**

— Estaziño kalea eta inguruan dituen espazioak oso garrantzitsuak dira eguneroko bizitzaren ardatzetatik aztertuta: Plaentxi Herri Eskolara sarbidea, jolas-parkeak, autobus geralekua, herrigunera zein Zeleta auzora sarbideak...
— Trafikoari dagokionez ere puntu garrantzitsua da, herriko ardatz nagusienetako bati (Estaziño kalea) elkartzen bait zaio San Andres auzoak eragiten dituen joan-etorri guztiak: landa-eremu zabala izanik, trafiko horren barruan sartzen dira ibilgailu astunak (esaterako, basoen kudeaketarako behar dena).
— Bidegurutze bat baino gehiago dela ezin da ukatu. Hori dela eta, leku bizia izateaz gain gatazkatsua ere bada: trafikoak oinezkoen joan-etorrien segurtasunari eragiten dio eta zaintza gune garrantzitsua denez, haurren eta hauen zaintzaileen autonomian eragina du honek.
— IUPIari dagokionez, eremu honetan Soraluzeko ohiko arazoak hauteman daitezke, espazio publikoaren urritasunetik eta orografia maldatsutik eratorriak. Ahaleginak egin badira ere (esaterako, espaloien artea zebra-bide goratuak ezarri dira), espaloiak estuak dira, ibilbide garrantzitsu batzu (igogailura, Zeletara...) estuegiak dira...
— 2024an egin zen "Denon Kaleak" prozesu partehartzailean, eskola-komunitatearen ekarpenetan zein zaintzailek kontatu zituzten bizipenetan oinarritu da diagnostiko hau.



*Estaziñoko jolas-gunea goitik ikusita. Trafikoz inguratua dagoen espazioa da, hesituta eta barrura begira dagoena.*



*Estaziñoko zirkulazioak puntu honetan: zebra-bidea eta eskailerak batetik, igogailura daraman espaloi estua bestetik.*



**Azalpena**

Esparru guztia oinezkoen lehentasun eremu bilakatzeko proposamena jaso da beheko irudian: ibilgailuak espazio honetan gonbidatuak lirateke, inguru osoa irizpide horrekin diseinatuz. Horretarako:

- Plataforma bakarra eraiki eta oinezko eremuko zoladurari jarraipena eman daiteke, ibilgailuek hartuko luketen espazioa gutxienekora mugatuz. Hala ere, ez da alde batera utzi behar bihurguneak ibilgailu handiei pasatzen utzi beharko diela, hori baita landa-ingurunera sartzeko gune bakarra.
- Igogailuraino espaloia zabaldu daiteke, ibilbide irisgarria ahalbidetzeko bost aparkaleku kenduz.
- Autobus geralekuaren ondoan eserleku gehiago jarri eta eskailerak berdegune batekin ordezkatu, oztoporik gabeko ibilbidea eginez.
- Igogailua hein batean nolabaiteko alternatiba gisa har badaiteke ere, Zeleta auzorainoko ibilbidean oinezkoen irisgarritasuna bermatu beharko litzateke (ikus itxaren ondorengo argazkiak). Dena den, fitxa honetan jaso den jarduketaren esparrua bidegurutzearen ingurunera nahi izan da mugatu.





*Igogailu aldera doan espaloi estuan, Estaziño 13. zenbakiko igogailuak are tarte gutxiago uzten du oinezkoak pasatzeko: ezinbestekoa da tarte horretan aparkalekuren bat kentzea. Goiko irudian egun dauden bostak kendu dira, espaloia zabaltzeko.*



*Etxaburueta aldera jeisten den espaloiko eskailerak arrisku-puntu bat dira: aukera bat da zuhaitzarekin batera berdegune bat jartzea, eta hura inguratuz eskailera-mailarik gabe jeistea (ikusi irudia gorago).*



*Jarduketaren esparrua zebra-bide honetaraino luza daiteke, trafikoa baretzeko neurriak ezartzeko.*

— Espazio honen eraldaketan espazio zabala hartzen da eta zati bakoitzak bere garapen independientea izan dezake, nahiz eta garatuko den proiektuan osostasunean planifikatu (esaterako, Zeleta auzora doan tartea).

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — Estaziñoko inguruaren eraldaketarako proiektua idatzi. | 15.000 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |

| | | |
|---|---|---|
| **2026-20029** | — Obra gauzatu. | 300.000 (*) |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — Jarduketa lehentasun altukoa denez baina ekonomikoki baldintzatuta dagoenez, lehenengo lau-urtekoan kokatu da, urtea zehaztu gabe. Dena den, proiektua bera lehenengo laurtekoan idazteak erakusten du lehentasun altuko jarduketa dela.<br>— (*) Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Hezkuntza. | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Estaziño kalean trafiko baretuko eremua ezarri izana, eta kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — "Ikus "Oinezkoen eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean.<br>— Espazio honi buruzko informazio eta irizpide gehiago "Genero-ikuspegia txertatuz Soraluzeko Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana" dokumentuan: https://www.soraluze.eus/eu/zerbitzuak/parekidetasuna/soraluze-espaziopublikoak-emaitza-3-_compressed.pdf | |

Igogailua hein batean nolabaiteko alternatiba gisa har badaiteke ere, Zeleta auzorainoko ibilbidean oinezkoen irisgarritasuna bermatu beharko litzateke. Konponbidea ez da erraza, San Andres auzoaren eta herrigunearen zein inguruko errepideen arteko trafikoak trate honetatik pasa behar baitu. Neurriek espaloien zabalera minimoa ahalbidetzen ez duten heinean, plataforma bakarra ezartzea izan daiteke irtenbidea.















| **1.4.b** | **Zeletan plataforma bakarra ezarri.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.4. Irisgarritasuna hobetzea eta trafikoa baretzea kale partekatuen eta plataforma bakarren bitartez. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Zeleta auzoko espaloiak. |



**Egungo egoera**

- Zeletako kaleetako plataformak estuak dira, eta plataforma hori 2 edo 3 zerrendatan banatzeak (galtzada, aparkaleku-zerrenda eta espaloia) Zeleta auzoko espaloiak estuak izatea eragiten du. Gainera, koskak eta etenak dituzte, eta orokorrean egoera txarrean daude.
- Trafikoarekin harremana ez da bereziki arriskutsua, “cul-de-sac” moduko batean egiten baita auzoko sarrera-irteera: arazo larriena irisgarritasun-arlokoa da.
- Aurrekoari gehitu behar zaio bi tarte horizontalak elkartzen dituzten loturen maldak oso biziak direla.
- Auzoko arazoak Soraluzeko Mapa Morean (2018) ere azaldu ziren, genero-ikuspegitik.







| | | |
|---|---|---|
| **Azalpena** | Jarduketaren atal nagusiak honakoak dira:<br>— Zeleta auzoan plataforma bakarra ezartzea, oinezkoen ibilbideen irisgarritasuna eta trafikoarekiko segurtasuna lehenetsiz. Erreferentzia: Ezozibideko berrurbanizazioa.<br>— Zeletako kaleak atsedenerako hiri altzari irisgarriekin hornitu.<br>— Bialaren eta auzoaren artean eraiki nahi den igogailuaren egitasmoarekin osatzen da jarduketa: ikus “Biala eta Zeleta auzunea igogailu batekin lotu” fitxa.<br>— Jarduketa osatzeko Zeleta eta Estaziñoko bidegurutzearen arteko tartea eraldatu beharko litzateke (ikus aurreko fitxa, “Estaziño kalean trafiko baretuko eremua ezarri”). | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — Zeleta auzoko berrurbanizazio-proiektua idatzi. | 15.000 |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — Berrurbanizazioa gauzatu. | 300.000 (*) |
| **Oharrak** | — IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoan jaso da obra egitea, ekonomikoki baldintzatua dagoen jarduketa baita. Dena den, proiektua bera lehenengo laurtekoan idazteak erakusten du lehentasun altuko jarduketa dela.<br>— (*) Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua eta obra. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Zeletan plataforma bakarra ezarri izana, eta kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Oinezkoentzako ibilbideak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

## 1.4.c Santa Ana kalean plataforma bakarra ezarri.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.4. Irisgarritasuna hobetzea eta trafikoa baretzea kale partekatuen eta plataforma bakarren bitartez. |
| **Lehentasuna** | — Ertaina. |
| **Irismena** | — Santa Ana kalea. |




| | |
|---|---|
| **Egungo egoera** | |



*Santa Ana kalearen hasieran ezarritako plataforma bakarrak ongi funtzionatzen du eta kalearen izaera komertzialari bultzada ematen dio.*

| | |
|---|---|
| | — Plataforma bakarra eteten den lekutik aurrera kalearen izaera aldatzen da eta oinezkoen zirkulazioak zailtzen dira. Batez ere Olaldera iristean, espaloi estuak eta etenak sortzen dira, oinezkoentzat irisgarritasun eta segurtasun arazoak sortuz.<br>—<br><br> |
| **Azalpena** | Jarduketaren atal nagusaik honakoak dira:<br>— Santa Ana kalearen aurreproiektu bat garatu, kalea orokortasunean lantzeko. Olaldeko Plan Bereziak dioena kontuan izan eta etorkizuneko kalearen jarraitasuna aurreikusi.<br>— Lehenengo zatiaren obrak gauzatu. |

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — Proiektua idatzi eta obra gauzatu (Olaldeko UJParen barruan). | 300.000 (*) |

| | | |
|---|---|---|
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (*) Jarduketa Olaldea eraldatuko duen UJP—Urbanizatzeko Jarduketa Programaren (“PAU-Programa de Actuación Urbanizadora”) eremuan sartua dago, finantzaketa, proiektua eta obra haren bitartez gauzatuko direlarik.<br>— Data aurreikuspen bat da: Olaldeko UJParen garapenean eragile askok parte hartuko duenez, ziurtatu ezin daitekeena.<br>— Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Obra egitea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Santa Ana kalean plataforma bakarra ezarri izana, eta kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Oinezkoen eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

| **1.4.d** | **Atxuri eta Baltegieta kaleetan plataforma bakarra ezarri.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.4. Irisgarritasuna hobetzea eta trafikoa baretzea kale partekatuen eta plataforma bakarren bitartez. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Zaharren egoitzako bidegurutzetik Zupide jauregiraino.<br> |
| **Egungo egoera.** | — Atxuri eta Baltegieta kaleak oso estuak direnez, galtzadak hartzen du ia zabalera guztia. Estuguneetan oinezkoak zokoratuta geratzen dira eta espaloien zabalerak ez ditu irisgarritasun baldintzak betetzen.<br>— Kale hauetan ekipamendu garrantzitsuak daude (kiroldegia, zaharren egoitza…) eta oinezkoen zirkulazioa handia. Kalearen trazadura zuzenak eraginda, ibilgailuentzat erraza da abiadura handia hartzea, oinezkoentzat arrisku egoerak sortuz. |

**Azalpena**

Jarduketaren atal nagusiak honakoak dira:

- Atxuri kalean plataforma bakarra sortu, egoitzako bidegurutzeraino.
- Baltegieta kaleaan plataforma bakarra sortu, Zupide jauregiaren pareraino.
- Ibilgailuen abiadura moteltzeko eta oinezkoen segurtasuna indartzeko hiri-elementuak jarri eremu osoan.




*Tarte batean plataforma bakarra ezarria dago: irisgarritasuna asko hobetu da, baina trafikoa arriskutsua denaren pertzepzioa altua da.*






| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — Atxuri eta Baltegieta kaleetako berrurbanizazio proiektuak idatzi eta obrak gauzatu. | 300.000 (*) |
| **Oharrak** | — IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoan jaso da obra egitea, ekonomikoki baldintzatua dagoen jarduketa baita.<br>— (*) Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Obra egitea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Atxuri eta Baltegieta kaleetan plataforma bakarra ezarri izana, eta kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Oinezkoen eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

| **1.5.a** | **Baltegieta kalean espaloia egokitu, Kiroldegiko arrapala barrenean.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.5. Espaloi eta pasealeku irisgarriagoak eraikitzea eta egokitzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Baltegieta kalean, Zupide jauregiaren parean eta kiroldegiko terrazara doan arrapala barrenaren ondoan. |




**Egungo egoera**

— Baltegieta kalean, kiroldegiko terrazara doan arrapala barrenaren ondoan, oinezkoen ibilbideak zeharkako malda handiegia du.



| | | |
|---|---|---|
| | — Arrapalaren hasierako kota eta galtzadaren kotaren artean espaloiak zeharkako malda handia hartzen du eta ez ditu irisgarritasun baldintzak betetzen. | |
| **Azalpena** | — Esku-hartze honek badu zerikusia Baltegieta kalean plataforma bakarra ezartzeko jarduketarekin (ikus “Atxuri eta Baltegieta kaleetan plataforma bakarra ezarri” fitxa), plataforma bakarra osatzearekin batera galtzadaren eta espaloiaren kotak berdintuko liratekelako, zeharkako malda leunduz.<br>— Hura iritsi bitartean, jarduketa puntual hau egitea aurreikusten da:<br>_ Arrapalaren barreneko kota erreferentzia gisa hartuta, %2ko zeharkako malda duen lerroa bota espaloiaren eta galtzadaren arteko banaketa-lerroraino.<br>_ Puntu horretan zintarria goratu (15cm inguru izatea aurreikusten da).<br>_ Galtzadarekiko jauzia 30cm ingurukoa izango denez, tarte batean hesi bat jarri.<br>_ Jarduketak hartuko duen espaloi tartea kalean behera zabaldu beharko da, (farolaren pareraino gutxi gorabehera), geometriak uztartzeko. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Kiroldegiko arrapala inguruko espaloien malda egokitu. | 15.000 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Baltegieta kalean, Kiroldegiko arrapala barrenean, espaloia egokitu izana, eta kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Oinezkoen ibilbideak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

## 1.5.b SAPA inguruan zoladuraren irisgarritasuna hobetu.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.5. Espaloi eta pasealeku irisgarriagoak eraikitzea eta egokitzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — SAPAtik Iturburu pasealekuraino (Baltegieta 22 ondoan).  |
| **Egungo egoera** | — SAPAko eraikinean espazio publiko estali bat eskuratu du Soraluzek, bai eta bertara iristeko zubi berri bat ere.<br>— Espazio honetara iristeko, Baltegieta kaletik zein Iturburu pasealekutik, galtzada-harrizko zoladuraren gainetik ibili beharra dago, eta honen egoera dela eta, ez da irisgarria.  |

| | |
|---|---|
| |  |
| **Azalpena** | Jarduketaren atal nagusiak honakoak dira:<br>— SAPA inguruko zoladura irisgarritasun irizpideen arabera egokitu, galtzada-harria birjarriz. |

| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
|---|---|---|
| **2026** | — SAPA inguruko zoladura birjarri. | 100.000 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — Kanpo-finantzaketa lotua dago. | |

| | |
|---|---|
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- |
| **Beste eragileak** | --- |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — SAPA inguruan zoladuraren irisgarritasuna hobetu izana, eta kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Zoladurak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |

## 1.5.c Ibai ertzean pasealeku irisgarriak eraiki.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.5. Espaloi eta pasealeku irisgarriagoak eraikitzea eta egokitzea. |
| **Lehentasuna** | — Ertaina. |
| **Irismena** | — Zubi Nagusitik Olaldera, Santa Ana kalearekiko paralelo. |




**Egungo egoera**



*Ezin da ulertu Soraluze, Deba ibaiarekin duen harremana ulertzen ez bada. Azken urteetan, gainera, harreman hori aldatzen eta indartzen ari da Udala, herritarren ongizatea eta jasangarritasuna ardatz hartuta.*

| | |
|---|---|
| | **Santa Ana kalearen atzeko pasealeku etena.**<br>Bailaran sartutako herria izanik, behar-beharrezkoak ditu pasiatzeko eta elkartzeko gune lau eta eguzkitsuak.<br>— Santa Ana kalearen atzean gaur egun badaude bi gune, pasealeku baten tarte etenak liratekenak, hegalkin gisa eraikiak ibaiaren gainean. Hego-mendebaldera begira, goizetik hasi eta bazkalondora arte herritar askok erabiltzen dituzte eguraldia ona denean, adinekoek batez ere.<br>— Bi tarte falta dira 150 metroko pasealeku jarrai bat osatzeko: Zubi Nagusitik hasi eta 10-12 zenbakien pareraino bata, eta 18-20 zenbakien atzean bestea.<br><br> |
| **Azalpena** | **Ibai-pasealekua osatu Santa Ana kalearen atzean.**<br>— Gaur egun daudenak osatzeko bi tartetan hegalkinak eraikitzea da asmoa: Zubi Nagusitik hasi eta 10-12 zenbakien pareraino bata (18m luze), eta 18-20 zenbakien atzean bestea (25m luze).<br>— Olaldeko garapenarekin batera egingo den zubiarekin batera eraiki liteke hirugarren tarte bat (lerro etena goiko planuan).<br>— Jarduketa egitasmo gisa jaso da IUPIan. Izan ere, hainbat alderditatik legoke baldintzatuta, neurri batean paisaia-azterketak argitu ditzakenak.<br>— Zailtasun teknikoez gain, araudi-arlokoak aurreikusten dira, udalaz gaindiko erakundeen aldeko ebazpenak ere beharko direlarik. |

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — Herriguneko ibai-ertzen inguruko paisaia-azterketa eta proposamenak egin. | 15.000 |
| **2027** | — Santa Ana kalearen atzean ibai ertzean pasealeku irisgarria osatuko duten tarteak eraikitzeko proiektua idatzi. | 15.000 |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — Ibai ertzean pasealeku irisgarriak eraikitzeko obrak gauzatu. | 800.000 (*) |
| **Oharrak** | — IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoan jarduketa zehatz bat jaso da epe ertaineko aurreikuspen gisa, besteak beste gai honen inguruan Udalak etorkizunean egin dezakeen ibilbidea adierazteko.<br>— (*) Bigarren laurtekoan jarri da jarduketa, egitasmo gisa jasota gera dadin IUPIan (ikus azalpena, gorago). Dena den, proiektua bera lehenengo laurtekoan idazteak erakusten du lehentasun altuko jarduketa dela.<br>— (*) Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — URA Uraren Euskal Agentzia.<br>— Lur-jabeak, dagokionean. | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Obra. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Santa Ana kalearen atzeko pasealeku etena osatzeko eraikitako tarte kopurua, eta bakoitzari dagokion kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — --- | |

| **1.6.a** | **Zebra-bideak egokitu eta berriak ezarri.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.6. Zebra-bide eta bidegurutzetako irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Udalerri osoa. |
| **Egungo egoera** | Diagnostiko orokorra:<br>— Zebra-bide askok arau-hausteak dituzten arren, galtzada mailan daudenek sortzen dituzte oinezkoentzako oztopo handienak: ibiak ez direlako ondo eraiki, koskak daudeko espaloia eta galtzadaren artean...<br>— Irisgarritasunaren ikuspegitik oztopo larrienak koskak dira: araudiak galtzada eta espaloia berdinduta egon behar dutela aipatzen du.<br>— Trafikoarekiko harremana eta ikusgaitasuna (bai gidariek ikusten dutena, bai eta oinezkoek ikusten dutena ere) kontuan hartu behar dira zebra-bidearen kokapena egokia ezartzeko.<br>— Zenbait kaletan distantzia luzeegia dago zebra-bideen artean.<br>— Asko dira oinezko ibilbidearekin lerrokatuta ez dauden zebra-bideak. Kasurik larriena biribilguneetan hauteman daiteke.<br>— Aurreko bien eraginez, arrisku uneak sortzen dira, oinezkoek ibilbide laburrak eta zuzenak lehenesten dituztelako.<br>— Araudien arteko bateragarritasun ezaren ondorio zuzena izan da ukimenezko zoladura desegokiak eta heterogeneoak izatea.<br>— Irisgarritasun-maila baxua duten zebra-bide gehienak zaharrak dira.<br>— Azken urteotan jarri/egokitu diren zebra-bide gehienen irisgarritasun-maila altua da. |
| **Azalpena** | Zebra-bideek neurri batean edo bestean trafikoa baretzen dute. Kasu batzutan, gaitasun hori indartzea gomendatzen da, zebra-bidea goratuz, estuguneak sortuz edo eta zoladura aldatuz, besteak beste.<br>— Beheko irudiko zebra-bidea Estaziño kalean dago. Garrantzitsua da, aurrerago gurutzatzen bait dute eskolara doazen haur gehienek.<br>— Trafikoa baretzeko<br>— Honen adibide bat azpiko irudian ikus daiteke, Atxuri eta Errekalderen arteko bidegurutzean. IUPIari dagokionez, esku-hartzea Atxuri-Olaldea oinezko zubiaren jarduketaren barruan sartu da.<br> |

Zenbaitetan goratutako zebra-bideak ez dira nahikoak irisgarritasuna errazteko. Adibidez, kale maldatsu batean kokatutako zebra-bideeta zeharkako malda gehiegizkoa izan ohi da.

— Kasu horietan malda gutxien dagoen gunea “zebra-bide” bilakatzea gomendatzen da: askotan bidegurutzea bera izango da.
— Honen adibide bat azpiko irudian ikus daiteke, Atxuri eta Errekalderen arteko bidegurutzean. IUPIari dagokionez, esku-hartzea Atxuri-Olaldea oinezko zubiaren jarduketaren barruan sartu da. Ikus “Olaldea eta Atxuri artean oinezkoentzako eta bizikletentzako zubi irisgarria eraiki” fitxa.




Dauden zebra-bideetan hobekuntza lanak antolatzeko diagnostiko eta jarduketa taula bat prestatu da. Ikusi taula fitxa honen amaieran.

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — Zebra-bide berriak ezarri eta/edo lehendik daudenak egokitu. | 10.000 |
| **2027** | — Zebra-bide berriak ezarri eta/edo lehendik daudenak egokitu. | 10.000 |
| **2028** | — Zebra-bide berriak ezarri eta/edo lehendik daudenak egokitu. | 10.000 |
| **2029** | — Zebra-bide berriak ezarri eta/edo lehendik daudenak egokitu.<br>— Atxuri eta Errekalderen arteko bidegurutzea egokitu. | 10.000<br>0 (*) |
| **2030-2033** | — Jarduketa jarraia. | --- |
| **Oharrak** | — (*) Beste jarduketa baten barruan dago: ikus “Olaldea eta Atxuri artean oinezkoentzako eta bizikletentzako zubi irisgarria eraiki” fitxa. | |

| | |
|---|---|
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- |
| **Beste eragileak** | — --- |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Egokitutako zebra-bide kopurua, eta kostua.<br>— Ezarritako zebra-bide berri kopurua, eta kostua. |

| | |
|---|---|
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Zebra-bideak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |

Soraluzeko zenbait zebra-bideren diagnostikoa, lehenespena eta hauen egokitzapenerako oinarrizko jarduketak honakoetan jaso dira:

- Diagnostikoa taula: labur.eus/Soraluze-IUPI-diagnostikoak
- Taularen edukiarekin sortutako mapa: labur.eus/Soraluze-IUPI-mapa1








| **1.7.a** | **Elizaren eta frontoiaren arteko espazioa egokitu.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.7. Espazio publikoak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Frontoi kalean, eliza eta musika eskolaren artean.  |

**Egungo egoera**



- Frontoia izan zen "Denon Kaleak" prozesu partehartzailean gazteek gehien baloratu zuten espazioa. Institutu ondoan dagoen espazio estalia izanik, ondoan duen kantxa eta espazio librearekin batera haur eta gazteen topagune nagusia da espazio hau.
- Horregatik ikusi da aparkaleku bat izateak arrisku egoera larriak sortzen dituela eta bi erabilera hauek ez direla bateragarriak: aparkalekuen beharraren inguruko presioa jeisten hasten denean ingurune hau espazio sozial gisa berreskuratzea aurreikusten da.



**Azalpena**



Jarduketaren atal nagusiak honakoak izango dira:
— Hirigintza taktiko bidez ingurune hezitzaile bat sortu.
— Aurreko jarduketaren doikuntzak egin eta behin-betiko obrak gauzatu.



*Jarduketa honen ondorioz, ez litzateke ibilgailurik sartuko gorantz (salbuespen batzu izan ezik, hiletak eta hezkuntza-zentroetarako zamalanak, besteak beste).*

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| 2026 | — --- | --- |
| 2027 | — --- | --- |
| 2028 | — --- | --- |
| 2029 | — Hirigintza taktiko bidez behin-behineko esku-hartzea egin. | 20.000 |

| | | |
|---|---|---|
| **2030-2033** | — Behin betiko obrak gauzatu. | 70.000 |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Hezkuntza. | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa gauzatu den ala ez.<br>— Aurrekontua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Inguruko hezkuntza zentroekin batera prozesu eraldatzaile bat abiatzea proposatzen da espazio honetarako.<br>— Espazio honi buruzko informazio eta irizpide gehiago "Genero-ikuspegia txertatuz Soraluzeko Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana" dokumentuan: https://www.soraluze.eus/eu/zerbitzuak/parekidetasuna/soraluze-espaziopublikoak-emaitza-3-_compressed.pdf | |

| **1.7.b** | **Erregetxe azpian espazio estali bat egokitu, Plaza Zaharrari lotua.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.7. Espazio publikoak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Plaza Zaharra - Erregetxeko aparkalekua. |




**Egungo egoera**



| | |
|---|---|
| | — Herrian zehar espazio estali gutxi dagoenez, Plaza Zaharrean karpa bat jartzen da urritik maiatzera. Honek, espazioa erabiltzeko aukera gehiago eskaintzen ditu, baina plazaren zati handia hartzen du, zokoak eta ezkutalekuak sortuz gainera.   |
| **Azalpena** |  — Estalpea herritarren elkarbizitzarako ezinbesteko espazioa bihurtu denez, behin betiko espazio estali bat eraikitzea aurreikusi du Udalak. — Proiektu honen barne egongo da igogailua eta komun publikoa eraikitzea (aurreproiektuan jada jasota daude). |

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — Proiektua idatzi eta obrak gauzatu. | 1.600.000 (*) |
| **Oharrak** | — IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoan jaso da obra egitea, ekonomikoki baldintzatua dagoen jarduketa baita. Dena den, aurreproiektua idatzi izanak erakusten du lehentasun altuko jarduketa dela.<br>— (*) Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Obrak gauzatzea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Erregetxe azpian espazio estali bat egokitzeko jarduketa egin izana, eta kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Espazio honi buruzko informazio eta irizpide gehiago "Genero-ikuspegia txertatuz Soraluzeko Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana" dokumentuan: https://www.soraluze.eus/eu/zerbitzuak/parekidetasuna/soraluze-espaziopublikoak-emaitza-3-_compressed.pdf<br>— Ikus "Igogailuak eta eskailera/arrapala mekanikoak" eta “Komun publikoak” fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

| **1.8.a** | **Plaza Zaharra eta ibai-ertza harmaila batekin lotu.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.8. Espazio naturalak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Plaza Zaharraren eta ibaiertzaren artean. |




**Egungo egoera**



| | |
|---|---|
| | — Herri askotan bezala, Soraluze ibaiarekin izan duen harreman historikoa berreskuratzen eta indartzen ari da.<br>— Ibaiertza herritarren egunerokotasunean irisgarriago egiteko bidean, Kalebarren 24 zenbakiko eraikinaren lekuan harmailak eraikitzeko lehenengo pausoak eman ditu Udalak, plaza eta ibaiertza lotzeko.<br>— Hala, proiektua idatzia dago (Bosark, 2024ko abuztua). |
| **Azalpena** | Jarduketaren atal nagusiak honakoak dira:<br>— Kalebarren 24ko eraikinaren eraisketa.<br>— Plaza Zaharraren eta ibaiaren arteko lotura egingo duen harmaila eraikitzea eta ibai-ertzeko paisaia-egokitzapena.<br> |

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** | — Obra egitea. | 450.000 (*) |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (*) Data zehatzik gabe jarri da, ekonomikoki baldintzatutako jarduketa baita. Dena den, proiektuaidatzi izanak erakusten du lehentasun altuko jarduketa dela.<br>— (*) Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Ingurumena eta Landa Garapena. | |

| | |
|---|---|
| **Beste eragileak** | — --- |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Plaza Zaharra eta ibai-ertza harmaila batekin lotzeko jarduketa gauzatu den ala ez, eta kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Espazio honi buruzko informazio eta irizpide gehiago "Genero-ikuspegia txertatuz Soraluzeko Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana" dokumentuan: https://www.soraluze.eus/eu/zerbitzuak/parekidetasuna/soraluze-espaziopublikoak-emaitza-3-_compressed.pdf<br>— Ikus "Eskailerak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |

| **1.8.b** | **Atsedengune bat egokitu Osintxura bidean.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.8. Espazio naturalak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Ertaina. |
| **Irismena** | — Osintxura bidea.<br> |
| **Egungo egoera** | — Osintxurako bidea herritarren ariketa fisikorako eta topaketarako baliabide nagusietako bat da. Hala hauteman zen, besteak beste, “Denon Kaleak" proiektuko parte-hartze prozesuan.<br>— Halere, ekipamendu beharra aipatu zen behin baino gehiagotan prozesuan zehar. Hiri altzari gutxi eta komun falta aipatu ziren besteak beste. Natur-guneak guztiontzako eskura egoteko beharrezkoak dira baliabide hauek. |



*Naturguneak guztiontzako eskura egoteko ezinbestekoa da hauek segurtasunare, irisgarritasunaren eta erosotasunaren ikuspegietatik ekipatzea.*

**Azalpena**

— Gipuzkoako Foru Aldundiari gaia aurkeztu eta elkarlana sustatu, honako hauetarako:
  - Osintxu bidean atsedengune estali bat eraiki (“eserleku irisgarriak dituen markesina zabal bat”), iturri bat eta komun publiko egokitua ondoan jarriz.
  - Bidean zehar tarteka hiri-altzariak jarri, batez ere eserlekuak.




| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — Gipuzkoako Foru Aldundiari gaia aurkezteko lanketak egitea. | 0 (*) |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — Atsedengunea gauzatzea, komun irisgarria barne. | 90.000 (*) |

| | |
|---|---|
| **Oharrak** | — (*) Ez da aurrekonturik jarri, Udalaren baliabideekin egitea aurreikusten delako.<br>— (**) Aurreikuspena da finantzaketaren zati handiena Gipuzkoako Foru Aldundiak egitea: aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena).<br>— IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoan jaso da obra egitea, udalaz kanpoko eragileen inplikazio-mailak baldintzatzen duen jarduketa baita. |
| **Udaleko arduradunak** | — Ingurumena eta Landa Garapena.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Kirolak eta kiroldegia. |
| **Beste eragileak** | — Gipuzkoako Foru Aldundia. |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Obra gauzatzea. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Osintxura bidean atsedengunea egokitu izana, eta kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Espazio honi buruzko informazio eta irizpide gehiago "Genero-ikuspegia txertatuz Soraluzeko Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana" dokumentuan: https://www.soraluze.eus/eu/zerbitzuak/parekidetasuna/soraluze-espaziopublikoak-emaitza-3-_compressed.pdf |

| **1.9.a** | **Hiri-altzari eta jolas-elementu egokituak edo irisgarriagoak jarri.** | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea | |
| **Helburua** | 1.9. Hiri-ekipamenduen irisgarritasuna hobetzea. | |
| **Lehentasuna** | — Altua. | |
| **Irismena** | — Udalerriko hiri-ingurunea. | |
| **Egungo egoera** | Diagnostiko orokorra:<br>— Banku edo eserlekuak: Irisgarritasun eskakizunetaz gain, araudiak ergonomiari lotutakoak ere ezartzen ditu. Oro har, azken urteetan jarritako bankuek araudia betetzen dute, elementuari dagokionez behintzat. Kokapenari dagokionez, zenbait kasutan ez da eserlekuaren ondoan araututako erreserbatutako espazioa uzten (gurpildun aulkiari edo haur-orgari lekua egiteko). Bestalde, ahalegin fisikoa leuntzeko edota zainketa-lanetarako baliabide diren aldetik, zenbait kasutan hauteman da espazioan kokatzeko eta antolatzeko modua hobea izan daitekeela.<br>— Paperontziei eta iturriei dagokionez, berrienek araudia bete ohi dute. Zenbait kasutan, ikusgaitasun urria duten pertsonentzat ez-detektagarriak izan daitezke.<br>— Mutiloi edo bolardoetan hauteman dira arau-hausteak, baxuegiak direlako edo ez daudelako inguruarekiko kontrastatuta. Irisgarritasun eskakizunetaz gain, Udaleko arduradun eta herritar askoren iritzi partekatua da oinezkoen ibilbideak oztopatzen dituzten elementuak direla, baina kotxeei behar ez bezala aparkatzea eragozteko neurri eraginkorra direla.<br><br>Jolas-elementuen diagnostiko orokorra:<br>— Jolasgune zaharrenetan hauteman dira gabezia handienak.<br>— Azken urteetan jarri edo berritu diren jolasguneak irisgarriagoak dira.<br>— Merkatuak eskaintzen dituen jolas-elementu egokitu edo irisgarri askotan hainbat gabezia hauteman daiteke, batez ere mugimenduari lotuta daudenetan. Esaterako, horietako asko espezifikoegiak dira (oso zaila da desgaitasun guztien berezitasunak elementu batekin asetzea), eta bestalde, ez da erraza eskaintzen dituzten aukera ludikoak erakargarriak izatea haurren gehiengoari dagokionez. | |
| **Azalpena** | — Udalak modu jarraian berritzen ditu hiri-altzariak eta jolas-elementuak, beharrak hauteman ahala eta finantzaketaren arabera. Esku-hartze hau IUPIan jasotzearen helburu nagusienak dira, batetik, berritze-lan horiek irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatuz egitea, eta bestetik, urtero xede horrekin partida bat izango dela bermatzea. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Hiri-altzariak berritu, jolas-elementuak barne, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatuz. | 20.000 |
| **2027** | — Hiri-altzariak berritu, jolas-elementuak barne, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatuz. | 20.000 |
| **2028** | — Hiri-altzariak berritu, jolas-elementuak barne, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatuz. | 20.000 |

| | | |
|---|---|---|
| **2029** | — Hiri-altzariak berritu, jolas-elementuak barne, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatuz. | 20.000 |
| **2030-2033** | — Hiri-altzariak berritu, jolas-elementuak barne, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatuz. | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Hiri-altzari zein jolas-elementu egokituak edo irisgarriagoak jarri izana, eta kostua:<br>– Berriak.<br>– Zaharkituak aldatzeko jarriak. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Hiri-altzariak" eta “Jolas-elementuak” fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

| **1.9.b** | **Komun publikoak egokitu edo irisgarriagoak jarri.** | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea | |
| **Helburua** | 1.9. Hiri-ekipamenduen irisgarritasuna hobetzea. | |
| **Lehentasuna** | — Ertaina. | |
| **Irismena** | — Udalerriko hiri-ingurunea. | |
| **Egungo egoera** | <br>*Komun publikoa, Udaletxe aurrean. Eskailerak jaitsi beharra dago bertara iristeko, beraz, pertsona askorentzat ez da irisgarria.*<br>— Besterik ezean, herritar askok komun publiko bezala erabiltzen dituzte kiroldegiko edota udaletxeko komunak. | |
| **Azalpena** | Bi komun publiko berri egokitzea aurreikusten du IUPIak:<br>— Erregetxeko estalpearen proiektuaren barruan (ikus “Erregetxe azpian espazio estali bat egokitu” fitxa).<br>— Osintxura bideko atseden-gunearekin batera, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren inplikazioa lotzen bada (ikus “Atsedengune bat egokitu Osintxura bidean” fitxa). | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **Oharrak** | — Kronograma zein aurrekontuak dagokion jarduketaren fitxatan jaso da (ikus fitxa honetan, bi errenkada gorago). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Ikus dagokion fitxa. | |

| | |
|---|---|
| **Beste eragileak** | — Ikus dagokion fitxa. |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Ikus dagokion fitxa. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Ikus dagokion fitxa. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Komun publikoak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |

| **1.9.c** | **Zabor-bilketa irisgarriagoa egin.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.9. Hiri-ekipamenduen irisgarritasuna hobetzea. |
| **Lehentasuna** | — Ertaina. |
| **Irismena** | — Udalerriko hiri-ingurunea. |
| **Egungo egoera** | Diagnostiko orokorra:<br>— Hondakinen edukiontziei dagokienez, gehienak albo-kargakoak dira (errefusa, organikoa, ontziak eta papera). Ahoaren altuera gehiegizkoa da, araudiak elementu horietarako aurreikusten duen 70-120cm-tik gora.<br>— Gainera, tapadun edukiontziak irekitzeko mekanismoak ez dira nahikoa irisgarriak edo erosoak: pedalak, txartelak, estalkiak…<br>— Iglu itxurako edukiontzien kasuan ere, ahoa altuegi dago.<br>— Edukiontzien kokapenari dagokionez, oinezko ibilbide egokitutik irisgarri egon behar dute eta hori ez da kasu guztietan betetzen: edukiontziak bi lerrotan jartzen direnean edo galtzada mailan, espaloitik urrun daudenean, adibidez.<br>— Irisgarritasun arazoak ez dira soilik diseinutik eratorriak: batzuk diziplina-ezaren ondorio dira (erabiltzaileek zaborra lurrean uzten dutenean, adibidez), beste batzu bilketa-lan desegokiaren ondorio (hustu ondoren behar bezala uzten ez direnean) eta badira mantentze-lan eskasaren ondorio direnak ere (pedala zapaldu eta tapa nahikoa altxatzen ez denean, adibidez).<br>— Txartelen erabilera erakusteko edo erabilera desegokia prebenitzeko komunikazio-jarduketak egin izan dira (batez ere organikoen edukiontzira bideratuak):<br>  – https://plaentxia.eus/komunitatea/udala/1744044886111-eguaztenera-bitarte-egongo-da-kalebarren-8n-hondakin-organikoak-botatzeko-txartel-marroiari-buruzko-informazio-bulegoa<br>  – Irekitzeko sistemaren alternatiba bakarra txartela izan ordez, mugikorraren bitartez egin ahal izateko aplikazioa ere jarri du eskura Mankomunitateak: https://plaentxia.eus/soraluze/1749541732550-mankomunitateak-ireki-aplikazioa-aurkeztu-du-herritarrei-hondakin-organikoaren-kudeaketa-errazteko<br> <br>*Ezkerretara, Debabarrena eskualdeko albo-kargako edukiontziak. Eskubitara, organikoen edukiontziaren gainean jarritako informazioa (txartelarekin edo mugikorrearekin ireki daitezke).* |

| | | |
|---|---|---|
| **Azalpena** | — Udalak gai hau Mankomunitatean aurkeztuko du, eskualdeko herrietan dauden ia edukiontzi guztiek ez baitute irisgarritasun araudia betetzen. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Edukiontzi irisgarriagoen gaia aurkeztu Sasieta Mankomunitatean. | 0 (*) |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (*) Ez da aurrekonturik jarri, Udalaren baliabideekin egitea aurreikusten delako. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — Debabarrena eskualdeko Mankomunitatea. | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Gaia Mankomunitatean landu izana, eta jaso duen erantzuna. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Zabor-bilketa" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

Espazio publiko gutxi izateak bilketa-guneak kokatzeko aukerak mugatzen ditu, erosotasun-, irisgarritasun- edo eta segurtasun-arazoak eraginez.




*Zenbait gunetan aukera bakarra edukiontziak puntu batean konzentratzea da, zaborra botatzeko ibilbideak luzatzen direlarik.*



*Espazio publikoa mugatua denean, ohikoa da edukiontziek oinezkoen ibilbidea oztopatzea.*



*Espazio publikoa mugatua denean, ohikoa da edukiontziek zebra-bideen inguruko ikusgaitasuna mugatzea.*



*Espazio publikoa mugatua denean, ohikoa da edukiontziak erabiltzeko ibilbide eta espazioetan trafikoareko segurtasuna ez dela bermatzen ikustea.*

## 1.10.a Hobekuntza-lan arruntak egin irisgarritasuna hobetzeko.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.10. Urtez-urteko jarduketa arruntak irisgarritasun-irizpideekin egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Udalerri osoa. |

**Egungo egoera**

Diagnostiko orokorra:

— Herritarrengandik jaso ohi diren irisgarritasunari buruzko kexa eta gabezia askok ez dute obra handirik eskatzen: egunerokotasunean jasaten dituzten traba eta gabeziekin daude lotuta, gehienetan.

— Gehien aipatzen direnen artean daude: ibietako koska txikiak, zoladura hautsiak edo labainak…

— Beste maila batean daude diziplina faltarekin lotutakoak: oinezkoen eremuetan aparkatutako ibilgailuak, baimendutakoa baino leku gehiago hartzen duten terrazak, salgaiak espaloietan jartzen dituzten saltokiak…





*Udaleko brigadak tarteka hobekuntza-lanak egiten ditu:*
[https://www.soraluze.eus/eu/albisteak/herriko-puntu-ugaritan-hobekuntzak-egiten-ari-dira-azken-asteotan-brigadako-langileak](https://www.soraluze.eus/eu/albisteak/herriko-puntu-ugaritan-hobekuntzak-egiten-ari-dira-azken-asteotan-brigadako-langileak)



*Ez irristatzeko tratamendua ere eman izan da espaloietan (azkenak, Errekalden, Santa Ana kaleko arkupean eta Txuritxu atzeko gunean)*
[https://www.soraluze.eus/eu/albisteak/ez-irristatzeko-tratamendua-eman-da-errekalden-santa-ana-kaleko-arkupean-eta-txuritxu-atzeko-gunean](https://www.soraluze.eus/eu/albisteak/ez-irristatzeko-tratamendua-eman-da-errekalden-santa-ana-kaleko-arkupean-eta-txuritxu-atzeko-gunean)

| | | |
|---|---|---|
| **Azalpena** | — Udalak modu jarraian egiten dituen hobekuntza-lanekin jarraituko du, beharrak hauteman ahala eta finantzaketaren arabera.<br>— Hobekuntza-lan horietan irisgarritasun irizpideak jarraituko dira. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Hobekuntza-lanak oinezkoen ibilbideetan. | 10.000 |
| **2027** | — Hobekuntza-lanak oinezkoen ibilbideetan. | 10.000 |
| **2028** | — Hobekuntza-lanak oinezkoen ibilbideetan. | 10.000 |
| **2029** | — Hobekuntza-lanak oinezkoen ibilbideetan. | 10.000 |
| **2030-2033** | — Jarduketa jarraia. | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — Debabarrena eskualdeko Mankomunitatea. | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Irisgarritasuna hobetzeko egindako hobekuntza puntual kopurua, eta orduak/kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Oinezkoentzako ibilbideak" eta “Zoladurak” fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

## 1.10.b Oinezko ibilbide eta guneetako garbiketa sakona egin presio handiko ura erabiliz.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.10. Urtez-urteko jarduketa arruntak irisgarritasun-irizpideekin egitea. |
| **Lehentasuna** | — Ertaina. |
| **Irismena** | — Udalerriko hiri-ingurunea. |
| **Egungo egoera** | — Denborarekin eta meteorologiaren zein erabilera-mailaren eraginez ugerra pilatzen da espaloi batzutean beste batzuetan baino gehiago eta horrek, itxura txarra emateaz gain, espaloien egoera kaltetu eta irristakor bihurtzen ditu.  *Debabarrena eskualdeko Mankomunitatearen bitartez, Soraluzeko espaloi eta oinezkoen ibilbideetako garbiketa sakona egiten da, urte batean herrigunearen erdia eta hurrengoan bestea:* https://www.soraluze.eus/eu/albisteak/kale-garbiketa-sakonagoa-egin-da-azken-asteotan-mankomunitateko-ugerra-kentzeko-makina-bereziarekin |
| **Azalpena** | — Mankomunitatearen bitartez egiten den garbiketa sakonarekin jarraitu. |

| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
|---|---|---|
| **2026** | — Garbiketa sakona egitea. | 0 (*) |
| **2027** | — Garbiketa sakona egitea. | 0 (*) |
| **2028** | — Garbiketa sakona egitea. | 0 (*) |
| **2029** | — Garbiketa sakona egitea. | 0 (*) |
| **2030-2033** | — Jarduketa jarraia. | --- |

| | |
|---|---|
| **Oharrak** | — Mankomunitatearen aurrekontu orokorraren barruan dagoen kostua denez, ezin zaio kostu zehatz bat egokitu. |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- |
| **Beste eragileak** | — Debabarrena eskualdeko Mankomunitatea. |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — --- |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Oinezkoentzako ibilbideak" eta “Zoladurak” fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |

# Garraioa

| **2.1.a** | **Egokitutako aparkalekuen irisgarritasuna hobetu.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 2. Garraioa |
| **Helburua** | 2.1. Garraiorako azpiegituren irisgarritasuna hobetzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Udalerri osoa.<br> |
| **Egungo egoera** | Diagnostiko orokorra:<br>— Espaloira sarbiderik ez. Asko dira galtzadaren eta espaloiaren arteko koska gainditzeko ibirik ez duten aparkaleku erreserbatutak. Oinezko pasabide goratuen ondoan baldin badaude honek egiten du ibiaren lana, galtzadatik igarotzeak dakarren segurtasun falta kontuan hartu behar delarik. [Ikus adibide bat fitxaren amaieran]<br>— Neurri desegokiak. Ohikoa da margotutako plazek arautatako neurriak ez izatea. Plazen neurria ez ezik, transferentzia eremuarena ere kontuan hartu behar da, garrantzi handia baitu honen erabileran. Araudi eguneratuek trasferentzia eremuari ematen diote garrantzia, ibilgailua utzi ondoren egin beharreko maniobrak errazteko duen eraginagatik.<br>— Seinaleztapen falta. Plazan INI (Irisgarritasun Nazioarteko Ikurra) margotzeaz gain, seinaleztapen bertikalak garrantzi handia du, distantziatik plaza ikusgai bilakatzeko.<br>— Plazen kokapenari dagokionez, herritarren eskaerek eragin handia izan dute, |

| | | |
|---|---|---|
| | ikuspegi global baten arabera desorekak hauteman daitezkelarik. | |
| **Azalpena** | Soraluzeko zenbait aparkaleku egokituen diagnostikoa egin da, lehenespen bat eta hauen egokitzapenerako proposatutako esku-hartzeak jasotzen dituena. Informazio hau taula batean jaso da, autobus geltokiekin batera.<br>— Diagnostikoa taula: labur.eus/Soraluze-IUPI-diagnostikoak<br>— Taularen edukiarekin sortutako mapa: labur.eus/Soraluze-IUPI-mapa1<br><br>Jarduketa honetan diagnostiko espezifikoa egitea eta hainbat alderditan irizpideak lantzea aurreikusten da, erabiltzaileen eskaeren araberako jardunbidetik planifikatutako batetara aldatzeko. Jorratu beharrekoak:<br>— Egokitutako aparkalekuen banaketa eta oreka geografikoa.<br>— Eraikin publikoen ondoko aparkalekuak: kopurua eta kokapena.<br>— Zaurgarritasun altuko bizitegi-eremuak.<br>— Araudia betetzea posible ez den guneetarako irizpideak.<br>— Txartelak baja emateko prozedura, hura eman zeneko baldintzak aldatu direnean. Ordenantza, 2019koa: https://www.soraluze.eus/eu/udala/udal-araudia/ordenantzak/aparkamendu_txartelak_mugikortasun_urria.pdf/view<br><br>Egokitzapen-lanek hartuko dituztenak:<br>— Kokapenaren araberakoak: ibilbide irisgarri eta seguruetara ibilbideak bermatu, leku egokiagoetara lekualdatu...<br>— Gutxieneko neurriak bermatu.<br>— Margoketa-lanak egin, seinaleztapen bertikala jarri. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Diagnostikoa egin eta irizpideak zehaztu. | 0 (*) |
| **2027** | — Egokitzapen-lanak egin. | 6.000 |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (*) Ez da aurrekonturik jarri, Udalaren baliabideekin egitea aurreikusten delako. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Udaltzaingoa, Gizarte Zerbitzuak. | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Egokitutako eta ezarritako aparkaleku kopurua eta aurrekontua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus “Aparkaleku irisgarriak” fitxa, “Araudia, irizpideak eta gomendioak” atalean. | |

Soraluzeko zenbait eskaileraren diagnostikoa, lehenespena eta hauen egokitzapenerako oinarrizko jarduketak honakoetan jaso dira:

— Diagnostikoa taula: [labur.eus/Soraluze-IUPI-diagnostikoak](labur.eus/Soraluze-IUPI-diagnostikoak)
— Taularen edukiarekin sortutako mapa: [labur.eus/Soraluze-IUPI-mapa1](labur.eus/Soraluze-IUPI-mapa1)









## 2.1.b Herrigunean bizikleta-bideen sarea diseinatu.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 2. Garraioa |
| **Helburua** | 2.1. Garraiorako azpiegituren irisgarritasuna hobetzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Udalerri osoa. |

**Egungo egoera**




— Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarearen mapan ikus daitekeenez, Oleatik gorantz doana “eraikitako foru tartea” litzateke, eta Mendiolatik beherantz doana “aurreikusitako foru-tartea litzateke”. Aldiz, hrerriguneko tarte batzu “erikitako udal-tarte” gisa daude jasoak, beste batzu “aurreikusitako udal-tarte gisa”, eta badago baita ere “oinarrizkoa ez den udal sarea” (https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/bizikletaz/ibilbide-desberdinen-mapa)










*Ikusten denez, Soraluzeko herrigunea zeharkatzen duten “udal tarteak” eta “udal sarea” trafikoaren plataforma berean daude ezarrita, bialetik Oleara trenbidea zenaren gainean doana izan ezik.*

- Gipuzkoa Foru Aldundia Maltzaga eta Soraluze elkartuko dituen bidegorriaren ("foru-tartea") proiektua lantzen hasia da, eta Udalaren asmoa da proiektu horri ekarpenak egitea.
- Hori da, hain zuzen, jarduketa honen xedea: herriaren eta herritarren behar eta interesetara egokituko den proiektua izatea, balizko bidegorriak herrigunean eragingo lituzkeen joan-etorriak aurreikusiz.

**Azalpena**

- Itxura guztien arabera, ibaiaren ondoan lotuko litaioke bidegorria herriguneari, bai Mendiolan, bai Olean. Printzipioz, ibaiari jarraitzea litzateke irizpide zuzenena, baina Oinarrizko Sarearen mapan ikusten denez, Olaldean 12 metroko jauzia egiten du "udal-tarteak", Santa Ana kalearen eta bialaren artean.
- **Olaldeko garapenak, ordea,** Santa Anatik Olako zubira leun-leun iristea ahalbidetuko luke, herrigunean Mendiola-Gabolats-Kalebarren-Santa Ana ardatz laua osatuz.
- Olako zubiko bidegurutzetik bi alternatiba lirateke teknikoki errazenak: atzera egin bialeko sarbidera gorantz (18m igoz 160m-ko luzeran), ala aurrera jarraitu Olean gora (15m igoz 160m-ko luzeran).
- Eskema orokorra ezarri ondoren zehaztu beharko dira bidegorria ezartzeko esku-hartzeak. Horri begira, IUPI honetan jaso nahi da **oinezkoen (eta oinezkoen ibilbideen erabiltzaile zaurgarriagoen) irisgarritasuna eta segurtasuna bermatu beharko direla** bizikleten eta oinezkoen arteko harremanean.



*Oinarrizko Sarearen mapan ikusten denez, Olaldean 12 metroko jauzia egiten du "udal-tarteak", Santa Ana kalearen eta bialaren artean.*

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| 2026 | — Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareko "udal-tarteen" ibilbideen proiektua idatzi.<br>— Gipuzkoako Foru Aldundia idazten ari den proiektuaren jarraipena egin, eta ekarpenak txertatu. | 15.000<br>(*) |
| 2027 | — --- | --- |
| 2028 | — --- | --- |
| 2029 | — --- | --- |

| | | |
|---|---|---|
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (*) Ez da aurrekonturik jarri, Udalaren baliabideekin egitea aurreikusten delako. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Udaltzaingoa. | |
| **Beste eragileak** | — Gipuzkoako Foru Aldundia. | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Herrigunean bizikleta-bideen sarea diseinatu izana, eta kostua.<br>— Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektuari ekarpenak egin izana. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — --- | |

## 2.2.a Autobus-zerbitzua eskualde-mailan hobetu.

**Ardatza**
2. Garraioa

**Helburua**
2.2. Garraiorako zerbitzuen irisgarritasuna hobetzea.

**Lehentasuna**
— Altua.

**Irismena**
— Udalerria, eskualdea.

**Egungo egoera**




— Trena 1967an galdu zenetik, autobusa da bailaran gora edo behera garraio publikoan egiteko aukera bakarra.
— Lurraldebuseko lerroen antolaketan herriguneak dira erreferentzia: haietatik abiatzen dira eta haietan amaitzen dira linea gehienak. Baina honek malgutasuna bakarrik ez, eraginkortasuna ere kentzen dio sareari. Jakina baita "nodo" edo korapiloen gaineko antolaketak askoz eraginkorragoak direla. Zentzu horretan, Debagoienan aurrerapauso handia izan da San Prudentzioko lotunea egokitu izana.

**Azalpena**
— Soraluzetik bertan dago Maltzagako korapiloa, San Prudentzion egindakoari jarraituz eskualdeko erreferentzia bilaka litekeena. Haren antzera, bidegorriak ere "Y grekoan" bertaraino iritsiko lirateke (ikus aurreko jarduketa, "Herrigunean bizikleta-bideen sarea diseinatu" fitxan).
— Bi indargune gehigarri ditu ordea Maltzagak San Prudentzioren ondoan: bata eskalari lotua, EAEko korapiloa dela esan bait daiteke (50 minutura leudeke 3 hiriburuak autobusez), eta bestea intermodalitateari dagokiona, bertan izan bait lezake Euskotrenera lotura.
— Maltzaga "eskualdeko garraio publikoaren nodo" bilakatzeko pausoak ematea da jarduketa honen xedea, ez bakarrik Soraluzeko herritarren interesa izan daitekelako, eskualdeko herri gehiena ere izango litzatekelako baizik. Izan ere, "nodoen" araberako diseinuak maiztasuna areagotzeko aukera ematen baitu, sarearen malgutasuna handituz eta linea luzeen zurruntasunak dakarten inefizientziak saihestuz.

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — Eskualdeko udal-arduradunekin batera Maltzagako garraio publikoaren nodoaren proposamena landu eta Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu. | 0 (*) |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (*) Ez da aurrekonturik jarri, oraingoz Udalaren baliabideekin egitea aurreikusten delako. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza, obrak eta herriko mantentze lanak, alkatetza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— | |
| **Beste eragileak** | — Lurraldebus, Euskotren. | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Eskualdeko udal-arduradunekin batera Maltzagako garraio publikoaren nodoaren proposamena landu izana.<br>— Proposamena Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — --- | |

# Eraikin publikoak

| **3.1.a** | **Musika Eskola eraberritu.** | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea | |
| **Helburua** | 3.1. Eraikin publikoetako irisgarritasuna hobetzea. | |
| **Lehentasuna** | — Altua. | |
| **Irismena** | — Musika Eskola.<br> | |
| **Egungo egoera** | — Eraikinak irisgarritasun gabezia garrantzitsuak ditu.<br>— Horietaz gain, energia-eraginkortasunari dagozkion gabeziak garrantzitsuak dira, eta beste maila batean, baita funtzionalak ere.<br>— Hori guztiagatik, epe ertainera eraikina eraberritzea aurreikusten da. | |
| **Azalpena** | — Eraikinaren eraberritze prozesuan, eraikinaren kanpo eta barne irisgarritasun irizpideen aplikazioa ziurtatuko da. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |

| | | |
|---|---|---|
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — Proiektua idatzi eta obra gauzatu. | 1.500.000 (*) |
| **Oharrak** | — IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoan jaso da obra egitea, ekonomikoki baldintzatua dagoen jarduketa baita. Dena den, aurreproiektua idatzi izanak erakusten du lehentasun altuko jarduketa dela.<br>— (*) Jarduketa honen aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza eta obrak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idatzi.<br>— Obra gauzatu. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — --- | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Eraikin Publikoak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |

## 3.1.b Udaletxeko arreta-gunea egokitu.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 3.1. Eraikin publikoetako irisgarritasuna hobetzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Apaiz Etxea. |

**Egungo egoera**



— Udaletxeko ia bulego guztiak lehen eta bigarren solairuan badaude ere, arreta-gunea kontzejupearekin harreman zuzenean dago.
— Kokapena ezinhobea da irisgarritasunaren ikuspegitik, baina egun dauzkan sarbide eta barne-antolaketa zein neurriek ez diote askorik laguntzen mugikortasun mugatua duenari.
— Barne-diseinuak zein ekipamenduak ere ez du araudiak horrelako espazio eta zerbitzuetarako ezarri duena betetzen.

**Azalpena**

— Asmoa da arreta-gunea egokitzea, sartzea zein irtetea, itxarotea edo eta arreta ematea zein jasotzea errazagoa eta erosoagoa izan dadin.
— Irisgarritasuna hobetzeko jarduketa hau komunikazioaren eta informazioaren inguruan aurreikusi diren beste hainbat jarduketekin ossatzen da (ikus “Udal irisgarria” esparru nagusiko hainbat jarduketa-fitxa).

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — Arreta-gunearen egokitzapena diseinatu. | 0 (*) |
| **2028** | — Arreta-gunearen egokitzapena gauzatu. | 40.000 |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |

| | |
|---|---|
| **Oharrak** | — --- |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza eta obrak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Arreta-guneko langileak. |
| **Beste eragileak** | — --- |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Obra egitea. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Udaletxeko arreta-gunea egokitu izana, eta kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Eraikin Publikoak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |

# Espazio eta jarduera pribatuak.

| 4.1.a | Merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduen irisgarritasuna hobetzeko laguntzak diseinatu eta gauzatu. | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 4. Espazio eta jarduera pribatuak. | |
| **Helburua** | 4.1. Espazio eta jarduera pribatuen irisgarritasun baldintzak hobetzea. | |
| **Lehentasuna** | — Altua. | |
| **Irismena** | — Udalerriko establezimenduak. | |
| **Egungo egoera** | — Orokorrean, sarbide publikoko establezimenduetako irisgarritasun-maila altua da.<br>— Irisgarritasuna hobetzeko obrei dagokien tasatan hobariak aplikatzen ditu Udalak. Ikus “Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Ordenantza Fiskala berrikusi irisgarritasun irizpideak txertatuz” fitxa “Udal irisgarria” esparruari dagokion jarduketa-planean. | |
| **Azalpena** | — Irisgarritasuna hobetzeko obren tasen gainean hobariak aplikatzen jarraitzea aurreikusten da.<br>— Lokalen irisgarritasunaz haratago, eta zerbitzuen irisgarritasuna areagotzea sustatzeko, udal-eragileek jasoko duten prestakuntza herriko establezimenduetako arduradun zein langileengana zabaltzea aurreikusten du Udalak, edukiak eta metodologia beren beharretara egokituz. Ikus “Herritarrak irisgarritasun unibertsalaren inguruan sentsibilizatu” fitxa “Udal irisgarria” esparruari dagokion jarduketa-planean. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Hobariak aplikatu irisgarritasuna hobetzeko obren tasen gainean. | 0 (*) |
| **2027** | — Hobariak aplikatu irisgarritasuna hobetzeko obren tasen gainean. | 0 (*) |
| **2028** | — Hobariak aplikatu irisgarritasuna hobetzeko obren tasen gainean. | 0 (*) |
| **2029** | — Hobariak aplikatu irisgarritasuna hobetzeko obren tasen gainean. | 0 (*) |
| **2030-2033** | — Hobariak aplikatu irisgarritasuna hobetzeko obren tasen gainean. | Jarraia |
| **Oharrak** | — (*) Hobaria izanik, ez dagokio aurrekontua jartzea. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Kontuhartzailetza, Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |

| | |
|---|---|
| **Beste eragileak** | — --- |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Aplikatutako hobariak: obra kopurua eta zenbatekoa. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — --- |

| | | |
|---|---|---|
| **Gomendatutako dokumentazioa** |  | **Hagamos accesible nuestro negocio.** Ayuntamiento de Barcelona. (2016). https://bcnroc.ajuntament.barcelona.cat/jspui/bitstream/11703/131734/1/AAFF_CAST_GuiaComer%c3%a7osAccessibles_Digital.pdf |

| **4.1.b** | **Etxebizitza-eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko obrak egiteko laguntzak diseinatu eta gauzatu.** | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 4. Espazio eta jarduera pribatuak. | |
| **Helburua** | 4.1. Espazio eta jarduera pribatuen irisgarritasun baldintzak hobetzea. | |
| **Lehentasuna** | — Altua. | |
| **Irismena** | — Udalerriko etxebizitza eraikinak. | |
| **Egungo egoera** | — Etxebizitza kolektiboko eraikin askotan espazio komunetan irisgarritasun arazoak daude (sarbideen inguruetan, atarietan, komunikazio bertikaletan).<br>— Irisgarritasuna hobetzeko obrei dagokien tasatan hobariak aplikatzen ditu Udalak. Ikus "Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Ordenantza Fiskala berrikusi irisgarritasun irizpideak txertatuz" fitxa "Udal irisgarria" esparruari dagokion jarduketa-planean. | |
| **Azalpena** | — Irisgarritasuna hobetzeko obren tasen gainean hobariak aplikatzen jarraitzea aurreikusten da. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Hobariak aplikatu irisgarritasuna hobetzeko obren tasen gainean. | 0 (*) |
| **2027** | — Hobariak aplikatu irisgarritasuna hobetzeko obren tasen gainean. | 0 (*) |
| **2028** | — Hobariak aplikatu irisgarritasuna hobetzeko obren tasen gainean. | 0 (*) |
| **2029** | — Hobariak aplikatu irisgarritasuna hobetzeko obren tasen gainean. | 0 (*) |
| **2030-2033** | — Hobariak aplikatu irisgarritasuna hobetzeko obren tasen gainean. | Jarraia |
| **Oharrak** | — Hobaria izanik, ez dagokio aurrekontua jartzea. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Kontuhartzailetza, Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Aplikatutako hobariak: obra kopurua eta zenbatekoa. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — --- | |

| | |
|---|---|
| **Gomendatutako dokumentazioa** |   **Irisgarritasun unibertsalari eta jabetza horizontalari buruzko gida.**<br>Elkartean (2020).<br>https://elkartean.org/pdf/irisgarritasun-unibertsala-eta-jabetza-horizontala.pdf |



*Obrak egiteko laguntzak eman baino, jarduketa integralak lehenetsi ditu Udalak, horien finantzaketarako beste erakundeak inplikatu direlarik. Adibidez, zortzi milioi eurotik gorako aurrekontuarekin (Eusko Jaurlaritza, Debegesa-Gipuzkoako Aldundia, Udala, bizilagunak), Ezozibideko bost ataritan banatutako 72 etxebizitzaren eraberritzea 2025 urteraino luzatu da, irisgarritasunean eta energia-efizientzian hobekuntzak ezarriz.*




Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala hurrengo dokumentuek osatzen dute:

I. IUPI: Memoria.
**II. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udalerri irisgarria.**
III. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irisgarria.
IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.
V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.










